

Españiko gotzaiak, Españi'ko Jaurlaritza eta Españi'ko militarrek

Zalaparta gogorra Españi'n sortu dena. Zer dela-ta? Kuxkuxean ibilli omen den jendea dela-ta.

Asarre dabil Españi'ko Jaurlaritza. Itzegin dute Españi'ko gotzaiak. Ta, ¿Españi'ko militarrek?

Españi'ko militarrek ez dute ezer esan. Españi'ko militarrek, egin, egin dute. Zer egin duten? Kuxkuxean ibilli.

Non ibilli diren kuxkuxean? Erregearen etxean bertan! Eta, jakina, Erregearen etxean ibilli ba'dira, beste non-nai ere bai. Baita zure etxean ere, zure etxea kuxkuxean izan nai balute.

Ez da txikia izen kuxkuxeketa ori dela-ta Españi'n sortu den ixan-billa! Batere arrazoirik gabe! Inor zergaitik arriturik ez bait du kuxkuxugintza zaratsatu orrek.

Lendabizi, oso egintza zarra delako, eta bigarren, Estatu edo Laterri guztietan egiten den gauza delako.

Egintza zarra da. Gaur-egun «CESID» (Centro especializado de información para la Defensa) esaten zaio militarrek kuxkuxerako duten batzordeari. Izen baldarra, benetan. Guda-denboran eta guda-opmdorengo urteetan, «SIM» (Servicio de Información militar) esaten zitzaion, eta millaka txartel zituan bere «fitxero» edo tarteltet-gian gordeta. Gaur «CESID»en aurka oiuka dabilzen eskubitarrek ez zuten orduan, eta ez dute gaur ere, «SIM»ek egindakoaren aurka deus esaten. Ez da leiala, ez da garbia, puntuu oni dagokionez, eskubitarren jokaera. Orrelako kux-

kuxketak, Laterri guztietan egiten dire. Inlanderrri'ko «CESID»ek, «Intelligence Service» deritza, eta Barren-auzietako Ministeritzaren esanera dago. «CIA» da, berri, izenez Laterri Alkartuetakoa, Lendakaritza berberaren esanera.... Itz bateaz esateko, ez dela Laterri, naiz txikirik orrelako erakunde edo instituzio bat ez duenik. Erakunde ori gaizki erabiltzean dago pekatua; eta orixe da, ain zuzen, Españi'ko gotzaiak esan dutena.

Orrelakorik gerta ez dedin:

- Erakunde ori ez ditek militarren zuzendaritzapean egon. Militarrek, Jaurlaritzaren morroiak besterik ez dire. Morroi utsak. Altsatu'ko aguazillak Altsasu'ko Udalaren morroiak diren bezala, Berdin-nerdin.

- Erakunde ori ez ditek «publikoa» ez diren, ots, Laterriari dagozkienak ez diren gauzak, gertakizunak edo pertsonak zelatzen, kuskuxatzen edo «espiatzen» ari.

- Erregea kuxkuxeatua izen omen delako sortu dute orrenbesteko istillu latza, Jaurlaritza onen etsaiek. Batzuek, Erregea Jaiako biurtu dutelako, eta beste batzuek, soilki Jaurlaritza au bota, eta Jaurlaritzan beren buruak jarri nai dituztelako. Kontuz, orde! Erregea ez da Jaiako! Erregea, pertsona «publikoa» da. Kuxkuxatua izen ditekiana. Ta, Jaurlaritza bat ankaz gora botata aren tokian nere burua ta nere adiskideak jartzeko edozein gertakizun bezaliatu nai izatea, joku garbia ez da.

Latiegi'tar Bixente

Inazio Larramendi Bera'tar Olerkaria

Liburu baten gizona dugu Inazio Larramendi. Ez da liburu, liburuxka baizik; ogeitamabortz orrialde txiki, amabortz olerki, denera 708 itz-lerro. Itxaropena irar-kolak argitaratu zuen Zarautz'en. Ez du urtearen aztar-nik ematen, baiñan 1960'garren urtean egiña dago. Urte ortan bertan izen il zen gure olerkaria: «Olerkiak» delakao izena darama.

Itz neurtuetan maitasuna azitzen eta ereiten alegintzen da. Aurretik azkeneraño euskara dauka begi ninian:

«Euskaldun elea
txukun ta garbiya
gizon jakintsuentzat
da zoragarria.
Eztakite ez nondik
ez nola etorriya
noski Jaunak guretzat
Zerutik jetxiya».

Gero bere jatorria dauka maite, danez gain ludi ontan: «Bera bezin politik iñontxo eztago».

Jainkoaren izena zortzi olerkietan aipatua agertzen da, doai berexi guzien buru bezala. Sinismenaren sua barruan nabaritzen da.

«Nafarroa» itza ez du beinere aipatzen, Euskalerria baizik, eta azken au aunitz aldiz: «Euskalerriya goratzen, beñere ez naz aspertzen», dio.

Bere itz neurtuetan xamurtasun ugari nabari, danez gain adiskideen gizartea. Adiskideak ongi artzen, bi-ziaren elburua da beretzat. Ortarako iru gauza zaindu bear: elkarte, erriko jaiak eta solasa. Zoriontasuna orixe da, adiskidekin biltzea solasaldi ederra egiteko. Bera'ko gizartean, barrengo atsegiña adiskideak eta solasak sortzen dute. Giro orren ezaugarri da Larramendi'ren olerkia, Juan Aldabe ta Basurko'ri eskeñia:

«Ay zen eder eta zori ona
bizi bagiñake bertan...!
Iya iruek elkartzen geran
geren erriko festetan».

Berez, Inazio Larramendi olerkaria da. Ba dauka bere berexitasuna. Benetan olerkiak, egitzako mamia daukate; ipui bat bezala erranak daude. Xeeatasun aunitzetan eratua dago gaia. Berri ugari ematen dituzte. Xeeatasunak margoakin egiñak dirudi. Itzak pipar gorriyaren dizdira damaigute. Gainera abesteko egiñak direla uste. Otsa atsegiña daukate. Ez dira errateko, abesteko bai. Biotzaren arnasa agertzen digute. Ori azaltzeko iru itz bear: ikutu, xamurtu, atsegindu. Giro ortan sartzen gaituzte olerki abek.



Inazio Larramendi Olerkaria.

Sendiaren erroak jakin bear, iturriko urak nolakoak diren ezagutzeko. Inazio Larramendi'ren aita, Pedro Larramendi zen, Andoain'darra, Arrieta baserrian jaioa. Anai aunitz ziren, denak ezpartzinegilleak eta toki aunitzetara eratuak, batez ere Erribera'n. Pedro, Dorotea del Puerto Oiarzu'ar neskarekin ezkondu zen eta Bera'ra etorri. Ezpartzinegilea egin zuten, baita etxea erosi. Karlstarren gudan millaka ezpartzin egin zituzten gudarientzat. Bera'n jaiotzen Inazio Larramendi, 1874'garren urtean. Bizitza osoan aitaren lana jarraitu zuen. Asun Arburua Etxalar'tar neskarekin ezkondu zen. Amairu seme-alaba euki zituzten. 1951'garren urtean Euskaltzaindiko laguntzaile izendatu zuten. Otsa zoragarria zeukan. Gizon atsegiña bezala zeukaten aunitzek. Anaiarteko gudan, lau seme espetxean euki zituen. Olerkari errikoa bezala geldituko da betiko gogoan.

Latxaga

Berri ona

Elizak sobratu

«Uzta ugaria da; baiña langilleak gutxi»
(Lk. 10, 1-12.17-20)

DAZTEN dudana ez dut txantxetan idazten. Etorkizuna iragartzen duten sasi-jakintsu oietakoa ere ez naiz. Asmatuko dudaren susmoa dut, barkar-bakarrik.

Intziri eta antsi aundietan bizi gera erlijio munduan sarturik gaudenok; inor ez da ausartzen, ordea, benetan negar egiten. zotin larriekin naastutako itzak irtetzen zaizkigu ezartirik eta negar legoraren malkoak jaulkitzen begietatik. Denok, ordea, iraganarekin meitemindurik bizi gera.

Gazte gutxi seminarioetan eta nobiziadoetan; pastoral lanerako sasoiaren diren apez eta erlijioso/ak urri. Urteetan aurrera egindakoak ugari eta auen eskuetan Elizaren gidaritzak.

Seminarioko eta nobiziaduko ateko aldaba jotzen duen edozein gazterekin lilluraturik geratzen gera eta ezagutu gabe sotanarekin eta habitoarekin jantzi nai dugu zer nai duen galdetzeko betarik artzen ez duguluarik.

Eziñezkoaren billa gabiltza, gezurrezko ametsen betetzea nai dugu; seminarioak, komentuak, monastegiak neska-mutil mardulez beteak ikusi nai ditugu... nun dira gazte oiek? Sasoiko eta asko giñaneko lanak egin eta pastoral konpromiso guztiekin kunplitu nai ditugu... ez al gera konturatzen urteak joan ala indarrak aitu eta gogoa nagitu egiten direla? Elizak kristauz beteak nai genituzke. Sinisgabezia nagusi den garaian, nor joango da elizara?

«Uzta ugaria da; baiña langilleak gutxi», dio gaurko ebanjelioak. Lana ez da gutxitu elizaren barrutian... Leen iru-lau apaiz zituzten erriak apezik gabe geratu dira. Orain iru-lau errietako serbitzuak egin bear izaten ditu apez batek. Leen komentu bakoitzean amar-amabost erlijioso bizi ziren elkarte bikaiñak osatuz; orain probintzi-buruak buru- auste latzak ditu komentu eta elkarte bakoitzerako iru-lau erlijioso billatzeko.

Parrokia bikaiñak eta ederrak or gelditu dira utsik. Frailen komentuak eta monastegiak or ditugu fraillez bete eziñik. Zertako bear ditu Elizak ainbeste eliza eta parrokia? Zertako bear dituzte fraillek ainbeste komentu? Eliz aundiak eta etxe galantak eukitzea ez da Jesus pobreaken testigu izatea.

Parrokiak sobratu egingo zaizkio elizari. Komentuak sobratu egingo zaizkie fraillei. Zergatik ez bide berriak urratzen asi? Zergatik leengoari eusteko interesa? Elizarren gogoia eta adimena erabat kizkuratu ote dira? Nundik datorkigu aurrera begiratzeko beldurra?

Elizaren misioegintza berritu bearrean aurkitzen gera. Aro berriei modu berriak. Arrigarria da, egiaz, kanpo itxura aldatu zuen eliza kapaz ez izatea barrukoa aldatzeko.


Testimonio garrantzizkoa da txirotasuna edo pobre izatearena. Elizak sinisgarritasuna adierazi nai badu bizitzeko moduz eta eraz aldatu bearra dauka. Dudarik gabe.

Artzalluz'tar Joxemari

«Mendaur»

Euskalerriak baditu mendi ederrak eta mendizaleentzat maitagarriak. Gure eskualdean badugu bat aski famatua: «Mendaur» 1.125 metro itxasoz gora aurkitzen dena. Alde batetik Sunbilla aldea dauka eta bertetik Malderreka guzia. Leku aunitzetatik ederki ageri den mendia da, bere itxura edatzen zabaltasun haundian, Elizondotik ere ederki ageri da. «Mendaur» mendiak badu bere historia joan deneko 300 urte hoketan. «Mendaur»-ko gain gañean badugu Ermita edo Baseliza 1693 garren urtean eraikia. Erran dezadan apainketak ere egiñak dituela hoietako bat 1963-ean. Ermita hori Trinitate Sainduaren ohoretan egiña da, Irutasun Sainduaren ohoretan.

Urtero urte eta Ermita egin zutenetik hain segur, egiten da Elizkizuna Baseliza hortan, Meza eta Elizkizun ederra. Iturengo Apez Yauna Udalako alkate ta bere lagunak herriarekin batean ospatzen dute urteroko ohitura hori. Yende aunitz biltzen da ta Iturendarrekinean, Malderreka, Aranaz, Sunbilla eta Baztandik ere. Denborak aldakuntza haundia egin du eta oraiko ibilaldia errexago izanen da hain segur, bideak ongi apainduak baitira. Nere gazte denboran aunitz aldiz izan naiz «Mendaur»-en eta Trinitate egunean sei aldiz izana naiz. 1940 urtean lenbiziko aldia Trinitate egunean eta 1950 garren urtean ondar urtea, geroztik ezipai-naiz izan MENDAU-En eta yoañ dira 45 urte. Arritzekoa da urteak nola yoaten diren. Urte hoietan bi-



zikletan yoaten ginen Itureneraño eta gero oñez, bistan da, goiko Ermitaraño. Gu bezela bertze herrietako gazteria eta zein ongi pasatzen ginuen eguna.

Elizkizunaren ondotik dibersioa eta beiti abiatzen ginen urtegi edo «enbalse» raño. Yende guzia beren yatekoakin yoaten ginen eta otordua egin ondoren, dibersioa hainbertze kordonista izaten ziren eta zer dantzaldiak gazteen artean eta erran beharrik eztago gu ere sasoin ederrean ari ginela. Gero dantzaldi hoiek egin ondoren denak Iturenera eta herriko plazan berriz ere dantzaldia. Egun eder bat pasa ondoren geren bizikletak hartu eta ilunabarreko etxera eta aski kontent elkar ezagutza berriak egin ondoren.

Denbora haietan zer ibilaldiak egiten ziren, oroitzen aniz Aranaztik etortzen zirela oñez mendiz mendi «Mendaur»-gañeraño. Aurtan ere Aranaztarrek + torri omen dire lenagoko denboretan bezala oñez mendiz mendi «Mendaur»-eraño. Zaletasunak irauten du. Yarraiki hortan.

Arritzekoa da «Mendaur»-ko ohitura eder hori noiztik datorren, 1693-garren urtean nola eraiki zuten Trinitateko Baseliza «Mendaur»-ko gain gañean eta urteak yoañ eta urteak etorri igaro dira 302 urte eta Irutasun Sainduaren ganako siñistea eta maitasunak nola irauten duen.

Irutasun sainduak zaindu ditzala Malderrekako herriak.

M. Izeta